



**SANTA LUTZIAKO UDAL JABETZAKO LURSAILEAN NEKAZARITZAKO
PROIEKTUENTZAT HAZITEGI BAT SORTZEKO HITZARMENA**

Tolosan, 2014ko uztailaren 8an.

Nire aurrean, Jose Luis Unanue Ugalde, Tolosako Udaleko idazkaria.

BILDURIK

BATETIK: IBAI IRIARTE SAN VICENTE JAUNA

BESTETIK: ANTONIO ARTOLA JAUNA

BESTETIK: JOSE JAVIER ORMAZABAL UGALDE

PARTE HARTU DUTE

IBAI IRIARTE SAN VICENTE jaunak, Tolosako Udaleko Alkate-presidentea, adin nagusikoa, 72.487.486 L, NAN zkia. duena.

ANTONIO ARTOLA IBARGUREN jaunak, Tolomendi, Tolosaldeko Garapenerako Elkartearen izenean, adin nagusikoa, 72.427.629 P, NAN zkia. duena.

JOSE JAVIER ORMAZABAL UGALDE jaunak, Fraisoro Nekazaritza Eskolaren, izenean, adin nagusikoa, 72.436.544 E, NAN zkia. duena.

Hiru aldeek, diharduten gisan, agiri hau sinatzeko nahikoa ahalmen legal aitortzen diote elkarri, honako aurrekari hauek jasota geratuz:



AURREKARIAK

1. TOLOSAKO UDALAK Santa Lutzia auzoan baratzagintzarako egokia den lursail bat du. Udalaren nahia, nekazari hasi berriek nekazari profesionalak bihurtzeko egin behar duten prozesuan laguntzea da. Helburu hori lortzeko, gehienetan lortzen zailenak diren baliabideak, lurra eta komertzializaziorako bideak, eskainiz. Finean, Tolosako Udalak Santa Lutzia lursail hori nekazaritza-enpresak sortzeko hazitegian bihurtu nahi du.

2. FRAISORO Nekazaritza Eskolak, lehen sektore arloko prestakuntza zabala eskaintzen du. Bere eginkizuna nekazaritzari modu proaktiboan laguntzea da, sektore honen lehiakortasuna hobetzeko asmoz, landako garapena bultzatuko dituzten formazio, enplegu eta ekintzaitza zerbitzu integralen bidez. Guzti honengatik, Fraisoro Nekazaritza Eskolak interes berezia du nekazaritza ikasketak amaitzen dituzten ikasleek, nekazari profesionalak izan daitezen, Tolosako Udalak eskaintzen duen baratza hazitegi proiektuan parte hartzeko.

3. TOLOMENDI, Tolosaldeko Landa Garapenerako Elkarte da. TOLOMENDI Elkartearen jarduera eremu fisikoa Tolosaldea eskualdera mugatzen da eta jarduera moten eremua, Elkartearen helburuek, bai orokor eta bai sektorialek, mugatzen dute. Besteak beste elkartearen baitan ekintza desberdinak bultzatu, koordinatu eta gauzatzen dira eta baita dirulaguntza desberdinak kudeatu ere. Kontuan izanik Tolosako Baratza hazitegiaren helburua, Tolomendik interes handia du ekimena burutze aldera bere esku dauden bitartekoak jartzeko eta dirulaguntza desberdinak emateko.

4. Hiru aldeek uste dute Tolosako Baratze Hazitegi proiektuak aukera paregabea eskaintzen duela hiru aldean elkarlanaren bitartez nekazari hasi berriek nekazari profesionalak bihurtzeko egin behar duten prozesuan laguntzeko eta horrexegatik beren esku dagoena eskaintzeko prest azaltzen dira proiektuak aurrera egin dezan.



Esandako guztia aintzat hartuta, elkarren adostasunez, parte-hartzaileek hitzarmena sinatu dute, elkar derrigortuz, hurrengo estipulazio hauekin:

ESTIPULAZIOAK

Lehen: Tolosako Udalak bere jabetzakoa den Santa Lutzia lursaila Baratza Hazitegia proiektua gauzatzera bideratuko du. Helburu horrekin, lursailak hamabost urtez (15) proiektuari atxikitzeko konpromisoa hartzen du. Epea amaituta, bost urteko (5) luzapenak ahalbidetzeko aukera eskaintzen du ere; beti ere alde guztiek hala adosten badute. Nekazari hasi berriek, lursail hau lantzen gehienez 3 urte egon daitezkeela jakinik, luzapenetan ziklo hau kontutan hartu beharko du udalak.

Edozein kasutan, lursailaren egungo klasifikazio eta kalifikazio urbanistikoa dela eta, "1. Santa Lutzia. Irakaskuntza-Ekipamendua" eremu urbanistikoari dagokion fitxan erregulatuta dagoena, lursailaren atxikipena aipatu iraupen borondatearekin burutuko bada ere, ezinbestean modu prekarioan burutzen den lur erabilera bezala ulertu beharra dago eta ondorioz, egoera urbanistikoak hala eskatuz gero edota betebeharrak edo aukera urbanistiko berriak hala eskatuz gero, Tolosako Udalak atzera bueltan, inolako kargarik gabe, lursaila berreskuratzeko ahalmena izango du. Kasu horretan, hazitegiko proiektuan lanean ari direnei, 3 hilabeteko aurrerapenarekin jakinaraziko die udalak, eta epe horren amaieran lurra, era egokian, udalaren esku utzi beharko dute.

Bigarrena: Tolosako Udalak nekazari berriek lanean aritzeko beharrezkoak diren zerbitzu minimoak eskainiko ditu; hala nola, ura, argia, komuna, dutxa eta bestelako zerbitzuak alde batetik eta bestetik, lursailaren erabilpenerako makinaria eta tresna minimoak bermatuko ditu.

Baratza Hazitegiaren baitan sortutako zerbitzuen gastuak (ura, argia, makinaren konponketa edo lan tresnen konponketa eta berritzea ...), ekintzaileen kontura izango



dira. Ekintzaileen betebeharrak eta eskubideak, garatuko diren bi dokumentu hauetan zehaztuko dira: Santa Lutziako Nekazaritza Hazitegiaren Barne Araudian eta lursailak adjudikatzeko deialdiaren oinarrietan.

Hirugarrena: Tolosako Udalak, lursail horretan ekoizten den produkzioa komertzializatzeko laguntza eskainiko du. Horretarako, Baratza Hazitegia proiektuan parte hartzen dutenek Tolosako Zerkausiko merkatuan salmenta postu bat jarri ahalko dute.

Laugarrena: Fraisoro Eskola lursailaren ustiapen baldintzen kudeaketaz arduratuko da. Fraisoro arduratuko da lursailen erabilpen egokirako baldintzak zehazteaz eta erabilpen egokiaren jarraipena egiteaz.

Era berean, lursailean ezarriko diren ustiapen proiektuak ekologikoak edo integratuak izan daitezkeen bermatuko du.

Guzti honetarako proiektuen eta ekintzaileen jarraipena egin eta aholkularitza teknikoa eskainiko du. Behar izan ezkerreko ekintzaileei arlo berezietan formakuntza eskainiz proiektua gauzatzeko den bitartean, eta baita hazitegi esperientzia amaitu ondoren, geroko proiektu propioa gauzatzeko unean ere.

Bosgarrena: Tolomendik Baratza Hazitegia proiektua gauzatzeko eskura dituen diru laguntzak emango ditu eta beste erakundeen aurrean beharrezkoak diren diru laguntza eskaerak izapidetzeaz arduratuko da.

Bestalde, proiektuan parte hartzen duten nekazariarentzat, hazitegiko denbora bukatzen zaienean eta bere kabuz modu profesionalean instalatzeko hautua egiten badute, lurra aurkitzeko aktiboki lan egingo du, lur bankua edo beste formula batzuen bidez, lurra eskainiz.



Era berean, Tolosako Udalarekin batera, nekazari hasi berrientzat komertzializazio bideak aurkitzen lagunduko du.

Seigarrena: Proiektuaren ezaugarri desberdinen inguruan lan egiteko, proiektuari jarraipena egiteko, parte hartzaileen baldintzak zehazteko eta hitzarmen honen inguruan nahiz Baratza Hazitegiaren inguruan sor daitezken gai desberdinen inguruan hitz egiteko, Tolosako Udala, Fraisoro Nekazal Eskolak eta Tolomendik jarraipen batzorde bat eratuko dute.

Eta adostasuna adierazteko, alde guztiek agiri hau sinatzen dute, sinatzaileak halako aleak, eta ondorio bakar baterako, adierazitako toki eta egunean.

Tolosako Udalaren aldetik

IBAI IRIARTE SAN VICENTE

Tolomendiren aldetik

ANTONIO ARTOLA IBARGUREN

Fraisororen aldetik

JOSE JAVIER ORMAZABAL UGALDE



TOLOSAKO
UDALA